

# CONCAVO CONVEXO

LED SILHOUETTE

Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURAREN ERORTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

CIRCUITO DE LA  
RED DE TEATROS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
ANTZOKI SAREAREN  
ZIRKULITUA

Centro  
Danza  
Canal

RED  
DE TEATROS  
DE NAVARRA

1948merkatua  
Merkaletxea de los años de Navarra  
1948ko merkataritza erakundeak  
Sarearen sotoa de Navarra

LISAKAKO  
UDALA

DNA  
CREACIÓN 2018

Comunidad  
de Madrid



# CONCAVO CONVEXO

Musika, dantza eta eskultura elkartzen dituen diziplina anitzeko lana da Concavo Convexo. Hutsari buruzko gogoeta proposatzen du, gorputzaren eta espazioaren arteko harremanaren ikuspegi eskultorikoan oinarrituta.

Lan honetan mugimendua modu mekanizatuan eta zientifikoan birplanteatzen da, leku negatibo, bakar eta huts batean sartuz. Ezerez horretan baieztatzen du gizakiak bere burua. Arkitektura, eskultura, pintura, dantza... espazioaren menpe daude, bakoitza bere bitartekoen arabera. Concavo Convexok espazioaren funtzio berezi bat azpimarratu nahi du: emozio estetikoaren sortzea.

Hutsaren inguruan Fisikak, Eskulturak eta Dantzak erakusten dituzten elkarguneek, sorkutza emankorreko testuingurua eskaintzen digute, gorputzen osagarritasunarekin eta argi zein musikarekin hutsak sortuz, Cóncavo Convexo sortuntza hibridoan oinarrituriko dantza garaikideko pieza bilakaturik.

“Espazioaz jabetzea edozein izaki bizidunen lehendabiziko keinua da, orekaren eta iraupenaren oinarritzko adierazpena izanik. Leku bat okupatzea da existentziaren lehen froga.”

Jorge Oteiza


## Proiektuaren babesleak eta ibilbidea:

- Nafar Gobernuaren DNA Sorkuntza 2019 Festibalaren barrenean ikerketa eta sorkuntza egonaldia, Lesakan.
- Madrilgo "Centro de Danza Canal - Residentes 2019" egonaldi artistikoa.
- Bartzelonako Centre Civic Barceloneta-n sorkuntza egonaldia 2019an.
- Nafarroako 948 MERKATUAN aukeratua.
- DNA 2020 Festibalean estreinua.
- 2020ko Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuituan aukeratua.
- Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Arte Eszenikoen Produziorako dirulaguntzekin lagundua.
- Nafar Gobernuaren ArtemPro 2020 dirulaguntzekin lagundua.

📌 **TRAILERRA**

📌 **EMANALDI OSOA, Agoitzen grabatua, 2020ko DNA Festibalean**  
**Pasahitza: concavoconvexo**

*Argazkiak: Irantzu Pastor*



## **Fitxa Artistikoa:**

Sorkuntza, zuzendaritza eta interpretazioa: *Jon López eta Martxel Rodriguez*

Soinu espazioa: *Gaizka Sarasola, Ibai Gogortza*

Dramaturgia: *Gaizka Sarasola*

Eskultura: *Lukas Ulmi*

Argien diseinua: *Andoni Mendizabal*

Argazkiak: *Irantzu Pastor*

Jantzien diseinua: *Iñaki Cobos*

Produkzioa: *Nagore Martinez*

## **Proiektuaren aurrekariak:**

Proiektu hau, aintzineko kaleko bikoteko lan bat, ERRATA NATURAL, garatzeko helburuarekin sortzen da. 2018ko DNA Festibalean estreinatu ondotik eta sare desberdinenen baitan bira luze bat egin ondotik, (Red Acieloabierto 2019an aukeratua) jasotako "feedback" positiboek lanaren birplanteamendua elikatu zuten, CONCAVO CONVEXO lanari, sorkuntza berri moduan garatzeko bidea irekiaz.

Hortik aintzina, ia bi urteko sorkuntza ibilbidean, lan eszeniko honek lehen aipaturiko entitateen babesa jaso du, eskaturiko egonaldi artistiko eta produkzioarako dirulaguntza guztiak jasoaz.

## **Egindako emanaldiak:**

-2020ko irailaren 5ean, Berako Kultur Etxean, Nafarroako Antzoki Sarearen (NAS) Zirkuituaren barrenean.

-2020ko irailaren 6an, Agoitzeko Kultur Etxean, DNA Festibalaren programazioaren barrenean.

-2020ko irailaren 20ean, San Adriango Kultur Etxean, NASEko Zirkuituaren barrenean.

-2020ko irailaren 27an, Etxarri Aranatzko Kultur Etxean, DNA Festibala.

-2020ko urriaren 16an Noingo Kultur Etxean, NASEko Zirkuituan.

-2020ko urriaren 17an, Lesakako Harriondoa Kultur Etxean, NASEko Zirkuituan.

-2020ko abenduaren 10ean, Nafarroako Antzerki Eskolan.

# LED SILHOUETTE

Led Silhouette Nafarroako Lesaka herrian egoitza duen dantza konpainia da, Martxel Rodriguez lesakarrak eta Jon Lopez madrildarrak sortu eta zuzendurikoa.

2016an etapa berria hasi zuten sortzaile gisa, dantza diziplina desberdinetan prestatutako artista gazte taldea zuzentzen, arte garaikidearen eraginpean. "La Veronal" edo "Kukai Dantza" bezalako konpainietan interprete moduan ere lanean jarraitzen dute. Mugimendu lengoai berriak eta hainbat kontzeptu ikertzen dituzte dantza garaikideari buruzko euren ikuspegi propioa eskaintzeko, lan egiteko plataforma bat sortuz eta bertan Led Silhouette eraikiz.

2016an euren lehen pieza "Moira" estreinatu zenetik, Valentziako "Festival 10 Sentidos" jaialdian estreinatua, egonaldi artistiko ezberdinak lortu dituzte ondorengo lekuetan: "Sortutakoak" Euskal Herrian, "Centro de Danza Canal-Residentes 2019" eta "Compañía Nacional de Danza"-ren egoitzan, azken biak Madrilen. Egonaldi artistiko hauetan sorturiko piezak Madrilgo *Cuarta Pareded-en*, Nafarroako DNA Festibalean eta Valentziako *Centre del Carmen* museoan erakutsi dituzte bertzeak bertze.

Produkzio propioak sortzeaz gain, konpainia desberdinetan sorkuntza eta ikerketa laborategiak egiten dituzte, hala nola, *Valencia Dancing Forward*, *LAB 180°*, *Dantzaz Konpainia* edota *Comphania de Dança de Almada-n*. Diziplina anitzeko kolektibo moduan artista bisual/plastiko, dokumentalista edota musikariekin elkarlanean aritzeko aukera izan dute proiektu desberdinetan, Luskas Ulmi, Nestor Lizalde, Irantzu Pastor, Paula Olaz, Javier Chozas edo Bertha Bermudez kasu.

Arteak jendartea eraldatzeko duen gaitasuna kontuan hartuz, haien proiektuek jendarte talde desberdinen parte hartzea eta ahalduntzea sustatzea dute helburu, komunitateen eta pertsonen arteko sare bat sortuz. Sorkuntza norbanakoaren baitan, sorkuntza berri bakoitza norberaren bizipenetan oinarrituz.

## IBILBIDEA

<https://www.ledsilhouette.com/tour>



## CONCAVO CONVEXO // LED SILHOUETTE

### *Emanaldiaren inguruko jarduera paraleloak*

Mediazioari dagokionez, formatu desberdineko jarduerak proposatzen ditugu, emanaldia eginen den espazio esznikoak aukera dezan bere publikoarekin hobekien konekta dezakeena. Aukera guztiak euskaraz, gaztelera edo ingelesez egiteko aukera dago.

1.- Tailer TEORIKO-PRAKTIKOA. Mugimenduz osaturiko hitzaldi moduan, sorkuntza garaikiderako orokorrean eta CONCAVO CONVEXOraiko espezifikoki erabili den lan egiteko moduaren azalpena: material koreografikoa sortzeko metodologia, hutsaren kontzeptuaren ikuspegia bertze arlo artistiko batzuetako obrekin (batez ere eskultura oteziarra), dramaturgia, musika konposizioa, argiteria ... Orohar piezaren barrenak erakusteko jarduera bat da, sorkuntza eszenikoaren konplexutasunaren inguruko kontzientzia handitzeko helburua duena.

2.- Tailer PRAKTIKOA. Bertan gorputzari eta Led Silhouette-n garatzen ari garen material koreografikoaren sorkuntzarako metodologiari erreparatuko diogu. Publiko parte hartzaile eta aktiboagoa eskatzen duen jarduera da, gero ikuskizunean bizituko denaren protagonista bihurtzen baitu, lehen pertsonan.

3.- Emanaldi ondorengo SOLASALDIA. Bertan, galderen txanda eta ikusitakoari buruzko elkarriketa sortzen dira. Jarduera honetan, publikoak lehenik pieza ikusten du, honen inguruko azalpenik edo aurreko esperientzirik gabe, eta gero, solasaldia gertatzen da. Bertze modu bat, interesgarria baita ere, hausnarketa bateratua sortzeko, kasu honetan publikoa ez dagoelako aurreko jarduerengatik baldintzatuta.

Aukera badago jarduerak euren aldetik konbinatzeko, 1 eta 3 edota 2 eta 3, hots, emanaldi aurretik tailer bat egitea, izan teoriko-praktikoa edo praktikoa, eta emanaldiaren ondotik solasaldiarekin bukatzea.